



ESKOLAKO OHARRAK

ORDUZ KANPOKOAK ETA ESKOLATIK ATERATZEKO BAIMENA

Egoera berezi honen ondorioz (COVID19), eta Hezkuntza Saileko Aholkulari Juridikoaren jarraibideei kasu eginez, ikasleak gure ardurapean dauden bitartean, hau da, 09:00etatik 16:30etara, oraingoz ez dira burutuko eskola orduz kanpoko ekintzak, ez eta klaustroak antolatu ez duen ekintzarik, kontingentzia protokoloa ziurtatzea ezinezkoa egiten zaigulako. Erabaki hau, gure eskolako Batzorde Iraunkorrek hartu du, non irakasle eta Guraso Elkarteak gauden. Era berean, ikasleren bat, eskola orduetan eskola eremutik ateratzeko, berariazko baimena sinatu beharko dute tutore legalek; honela, arazoren bat egongo balitz, Euskal Gobernuak jarraipen zehatza egiteko aukera izango luke. Baimena dokumentu honi atxikita doa eta eskolako web orrian denon eskura jarriko dugu.

BABESGABETASUN-ZANTZUAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: haurrak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) eskolan uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela, hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek edo tutore legalek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari.

ARROPA

Ikasturte hasi den honetan, aurreko ikasturtean gure ikasleek galdu zuten arropa guztia jaso dugu. Iraila bukatu arte, eskolako atezainaren sarreran edukiko dugu, bertatik pasa eta berreskuratu dezakezue. Ondoren, gobernuz kanpoko erakundeei deituko diegu arropa hori jaso dezaten.

EUSKARA

2020-2021 Ikasturte honetan ere Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak emango ditu. Informatu eta egizu beste askok bezala, hobetu euskara! Eskaera egiteko EPEA: 2020ko urriaren 1etik 31ra. Informazio gehiago Oiartzungo Udaleko **Euskara Zerbitzuan: 943493842/ euskara@oiartzun.eus**

MUSUKOA ETA URA EDATEKO BOTILA

COVID19a dela eta, gomendagarria da zuen seme-alabek, eskolara bada ez bada ere 2. musukoa ekartzea. Hau da, ikasleak bere musukoa galduko balu edo ekintzaren bat egiten zikinduko balu, gomendagarria da beste bat edukitzea. Bestalde, ura edateko edalontzi propioa edukitzea ere garrantzitsua da, gaixotasunik kutsa ez dadin.

ARRATSALDEETAKO SARRERAK

Datorren astelehenetik aurrera, irailak 21, goiz eta arratsaldeko ordutegiarekin hasiko gara. Etxean bazkaltzen duten ikasleen kasuan, 14:40etan sartuko dira bakarrik edo heldu batekin eskola eremuan, eta maila bakoitzari protokoloan dagokion elkargunean jasoko dituzte irakasleek.

euskaraz
bizi
nahi dut





